



## ARRASATEN SAN JOSEPEKO HARROBIAREN HUTSARTEAREN ETA GERTUKO INGURUNEAREN ETORKIZUNEN DISEINUA EGITEKO IDEIEN LEHIAKETA ARAUTU BEHAR DUTEN ARAUAK (INGURUMEN, GIZARTE ETA EKONOMIA ARLOKO ERREKUPERAZIOA)

### Harrobiaren hutsarteak osatzen duen gunek izan ditzakeen destinoak.

Aurreko arauan aipatutakoaren arabera, orientazio gisara, hona hemen San Josepeko harrobiaren hutsarteko gunea izan ditzakeen erabilerak:

- **Bizitegia edo etxeak:** betiko bizitegiez gain, lehiatzaileek aztertu dezakete estandarra ez den familia egituretarako edo beste kolektibo batzuen egituretarako lojamendu tipologia berriak sortzeko aukera. Izan ere, gaurko egunean, salbuespenak salbuespen, Arrasaten dagoen etxe eskaintza da betiko familiarentzat eskaintzen dena. Aztertu liteke beste mota bateko etxebizitza, langile flotatzaileentzat, ikasleentzat, gazteentzat edo beste kolektibo batzuentzat.
- **Jarduera ekonomikoak:** oro har hirugarren sektoreari lotutakoa izan liteke, adibidez, zerbitzuak, bizitegi-tako erabilerei atxikitako hurbileko merkataritza, eta abar. Edo aztertu liteke ere bulego mota berri bat garatzea, behar hauei erantzun lukeena: hirugarren sektoreko jardueren zentroa, zerbitzuen eta bulego profesionalen zentroa ("Bulego-aldea"), edo enpresak inkubatzeko eremu bat. Hori ez da oztopoa edo traba industria erabilera bateragarriak ere planteatu ahal izateko.
- **Eremu ludikoak eta sozializatzeak.** Arrasateko baldintza klimatologikoak, muturrekoak izan barik, esan genezake klima atlantikoari dagozkiola, euri ugari egiten duelarik. Horregatik, proposamenak aintzat hartu lezake gune estaliak izatea, sozializatu, bildu, paseatu, jolastu, eta abar egiteko. Eremu horietako batzuk izan litezke barne eta kanpo gune errepresentatiboak (geroago erakutsiko diren kontzeptuak).
- **Hornidura publikokoa:** aisiari (naturari, hurbileko inguruneari edo ingurumenari lotua), denbora libreari eta kirolari lotutakoak barne.
- **Lurzoruaren erreserba estrategikoak:** Epe ertainera eta epe luzera garatzeko.

Osagarri moduan, agertu eta azpimarratu nahi dugu bi elementu berezi hauek aztertzea komeni dela:

**Barne gune errepresentatibo bat garatzea:** lehiatzaileek barne gune berezi baten ikuspegia eskaini beharko dute, Harrobiaren bolumenaren barnealdean sartzen dena.

**Kanpo gune errepresentatibo bat garatzea:** lehiatzaileek tratamendu egokia eskaini beharko diote Eibar-Gasteiz autopistako tunelen sarrera-irteerari San Josepeko harrobian, izan ere, autopista hori bihurtuko da ardatz garrantzitsu iberiar penintsula eta Europako gainerako herrialdeak lotzeko; autopistan milaka bidaiari ibiliko da, eta komeni da harrabiko hormatzarrak gaur egun ematen duena baino ikuspegi hobea eskaintzea.

Horregatik komeni da ideietan jasotzea tunelaren sarreraren tratamendu egokia, proiektua garatzeko eskaintako proposamenen testuinguru orokorrean. Baloratuko da sarrera horrek izatea zerbait erakargarria ikusgarritasunaren, estetikaren edo eskulturaren aldetik, erakargarria izan dakien autopistatik ibili dabiltzan pertsonen.



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

